



33 BULETINA

Red de Acogida Ciudadana / Hiritarron Harrera-Sarea

2020ko maiatzaren 17a, igandea

GERO ETA ELKARTASUN HANDIAGOA

Gero eta hurbilago dugu itxialdiaren amaiera. Gero eta hurbilago, eguneroko bizitzako plazer txikiak dastatzea, harremanak, aisialdi partekatua, lanaren errutina. Gero eta hurbilago dugu, orobat, erakundeek egun aterpetxeetan ostatu eman zaien pertsonen hartu behar duten erabakia. Pentsatzen ari dira pertsona horietako batzuk kale gorrian uzteko aukera. Erakunde eta pertsona askok, ordea, hau eskatzen dugu: inor kalean ez uzteko baliabideek jarrai dezatela, ez egun ostatu hartuta daudenak, ez eraikin abandonatu edo gisa horretakoetan daudenak.

Horrekin batera, **jantoki sozialak irekitzea** ere eskatzen dugu, eta ez Donostiako Udalari bakarrik, ehunka pertsona goseak egon ez daitezen. Jantokiok irekitzea oraintxe erabaki behar litzateke, **goseari ez baitago "itxaron" esaterik**. Tamalez, ez dirudi horretarako planik dagoenik.

Duela hilabete Harrera Saretik zabaldu genuen ***Ez itzazue kaleratu manifestuak mila lagun*** **eta 50 hiritar-erakunderen babesa jaso du dagoeneko**. Gipuzkoako zenbait esparrutako 25 eragilek horixe bera adierazi dute bideo batean, zeina lotura honetan ikus baitaiteke: <https://youtu.be/yzK4tkf8Ot8>. Komunikabideetan agertu diren zenbait erreportajek ere lagundu dute agerian jartzen hortxe zegoen errealitate bat.

Giza Kate Solidarioa

Behar-beharrezkoa da instituzioek hiritarren eskakizun hori kontuan har dezaten. Horrekin bat datozeinei proposatzen diegu **Giza Kate Solidario** baten bidez adieraztea, eskaria egiten diegun hiru erakundeak **lotuko dituen** kate batez: **Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza**. Eguna: **maiatzaren 27a, asteazkena, 19:00etan**. Biharamunean izango da Donostiako Udalaren osoko bilkura, eta hori da eskaria agerian jartzeko modu bat. Giza katea baimen eta osasun-betebehar guztiak betez egingo litzateke, distantziak zainduz, ukipen fisikorik gabe eta musukoak erabiliz.

Parte hartzeko eskaria ez zaie donostiarrei bakarrik egiten, arazo honek lurralde osoari eragiten baitio. Gaur egun Donostian kontzentratzea zenbait arrazoiri zor zaio. Bat, beste udal batzuk oso gutxi inplikatu izana ostatu-baliabideak martxan jartzerakoan. Hala ere, hori aintzat hartu zen 2015eko **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroan**, bai eta **Etterik Gabeko Euskal Estrategia 2018-2021**ean ere.

Babes gehiago eskatzen ditugu Manifestuarentzat, hemen: <https://cutt.ly/OtKaVgi>.



33 BULETINA

Red de Acogida Ciudadana / Hiritarron Harrera-Sarea

Ekarpen solidarioak

Elikagaiak eta arropa banatzeko lokala. Aste honetan, **lokal bat lortu dugu** ekarpen solidario bati esker, eta, ondorioz, orain arte baino baldintza hobeetan jarraitu ahal izango dugu gure lana egiten. Lokala egokitzeko, **metalezko apalategiak behar ditugu**. Norbaitek halakorik utziko baligu, gastua gutxituko genuke. **Arkoi bat** ere beharko dugu jaso ohi ditugun elikagai izoztuentzat, hotz-katea eten ez dadin, bai eta **hozkaile bat** ere. Orain arte elikagaiak banatzen lan handia egin bada ere, badakigu itxialdia amaitutakoan asko handituko dela langabetuen kopurua, eta haien bizi-baldintzak asko zailduko direla. Hori dela-eta eskatzen dugu **jantoki sozialak irekitzea**, eta ez Donostiako Udalarik bakarrik, ehunka pertsona goseak egon ez daitezen.

Aste honetan, Sareak 127 norbanakori eta 18 familiari eman dizkie elikagaiak, hau da, 200 pertsonari guztira.

Boluntariotza. Orobat, **boluntario gehiagoren beharra** izango da hemendik aurrera. Itxialdian, berrogeita hamar bat boluntario ditugu, horiei esker ari gara banatzen elikagaiak. Ez dirudi instituzioek behar horiek asetzeko baliabideak emango dituztenik, eta boluntarioen sarea indartu beharra egongo da eginkizun horretarako. Bestalde, lehengo lagun egiteei edo lagun egite berriei ekinda, gazte horietako askorentzako laguntza gisa, haien prozesuan zuzenean esku hartzeko aukera dago. Lagun egiteko zeregin horretan sartzen dira aisialdiko jarduerak, hala nola kirola, kultur bisitak, mendi-ibiliak... Alegia, aukera sorta zabala dago, beharrak ere bai, norberari ondoen datorkion horretan inplikatzeko.

Diru-ekarpen solidarioa. **192 lagunek** emandako dirua **14.170 €**-koa izan da. **Gastuak, berriz, 13.673,37 €-koak, eta saldoa 496,63 €-koa da.** Nabarmenezkoa da dirua emateko ahalegin hori, kopuruagatik eta horretan dihardugun bi hilabete iraun duelako. Diru-emate hori gabe, ezin izango genien erantzun jaso ditugun janari-eskariei. Elikagaiak biltzeko ahaleginetan jarraitzen dugu, lehenik Elikagaien Bankutik, elikagai-denda batzuetatik eta ostalaritzatik, supermerkatuen batetik, norbanako batzuegandik... baina, hala eta guztiz ere, jasotzen duguna osatzeko beharrak ezinbesteko egiten du diru-laguntza hori. Espero dezagun izango dugula aurrerantzean ere.

Donostiako Hiritarron Harrera Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Facebook: @HiritarronHarreraSarea Instagram: @harrerasarea

Youtube: <https://youtu.be/yzK4tkf8Ot8>

Dohaintzak: k.k. ES44 2095 5013 70 9119577666

Beste buletinak kontsultatu nahi izanez gero, hemen dituzu:

<http://www.mugak.eu/news/covid-19-boletines-diarios-de-la-red-ciudadana-de-acogida>

<https://www.gipuzkoasolidarioa.info/hiritarron-harrera-sarrera>